






BETERRIKO ALDIZKARIA



AIURRI


1995eko urriaren 11a. 22. zenbakia. Doan banatzen da.

“Bizi naiak lege zorrotzak”




saiakera bilduma dagoeneko salgai

- 1 *Manuel Larramendi: bizitza eta obra*
- 2 *Gerra Zibila andoaindarren begietatik*



2.000 pta



1.500 pta

Zure liburudendan eros ditzakezu

Erne bazkideak: Bazkunean bertan eros ditzakezue!



KULTUR
BAZKUNAREN
ARGITALPENAK

Aurkibidea

- 1. AURKIBIDEA. AIURRITARRAK**
Joxin Azkue: "Zizurkilgo kanoiak, Belateko negarrak".
- 2. INKESTA.**
Eta zu, animaliazalea al zara?
- 3. LARRAUL.**
Ezagutzen al duzu zure herria?
- 4-5. ANDOAIN.**
4 milioi garapenerako.
Lanbide heziketa 1945-1995.
- 6. ASTEASU.**
I. mendi astea.
- 7. BILLABONA-AMASA.**
Nazioarteko Errebote Txapelketa.
- 8. ZIZURKIL.**
Elizpe elkarte, jubilatuen toxkoa.
- 9. ENPRESA.**
Hol-Atz: pipien aurkako tratamendua.
- 10-11. ERREPORTAIA.**
Espetxetik itzuli berriak.
- 12-13. KULTURA.**
"Bizi naiak lege zorrotzak".
- 14. ERRETRATU ZAHARRA.**
Udaletxearen inagurazioa Adunan. 1959.
- 15. ZE BERRI? / LEHIAKETA.**
- 16. AGENDA.**

Argitaratzailea: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32 Fax: 30 07 31 **Babesleak:** Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak.
Zuzendaria: Antxiñe Mendizabal. **Maketatzailea:** Iñaki Garmendia. **Erredakzioa:** Antxiñe Mendizabal, Amagoia Mujika, Ainhoa Oizartabal **Argazkiak:** Manu Mujika **Komikia:** Iñaki G. Erro. **Publizitate arduraduna:** Mailu Ibarbia. **Banaketa arduraduna:** Iñosken Mujika. **Administratzaile-eragilea:** Kepa Sarasola. **Inprimategia:** Gertu Kop. E. (Zubillaga, Oñati). **Filmaketa:** VideoCys, Donostia.
Lege-gordailua: SS-202/94 **ISSN:** 1134-0614
Tirada: 3.500 ale.

OHARRA: Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.



MANUELLARRAMENDI



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura sailaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamenduaren laguntza jaso du.

Aiurritarrak



JOXIN AZKUE

ZIZURKILGO KANOIAK, BELATEKO NEGARRAK

XVI. mendearren hasiera hartan independentea eta bere buruaren jabe bazen ere, Nafarroa, gaurko Euskal Herria bezalatsu, bi herri indartsuen tartean kokatuta zegoen: Frantziakoa eta Espainiakoa (Gaztelerrria eta Aragoa zehazki). Kokagune berezi honek, bi nazio boteretsu hauen arteko liskarren erdi-erdian ere egotea zekarkion, eta horrela gertatu zen 1512an.

Urte honetan beste hamaika alditan bezala, Fernando Katolikoak gerra deklaratu zion Frantziako Errege zen Luis XII.ari. Albreteko Joanek, Nafarroako Erregeak, gudukatu nahi ez, eta bere neutraltasuna aldarrikatzen saiatu bazen ere, nafar lurretan Gaztelako eta Aragoako armadak, Albako Duke ankerraren gidaritzapean, nola sartzen ziren ikusi behar izan zuen.

Gipuzkoarrok, bestalde, Gaztelako Erresumari lotuta geunden aspaldidanik, eta euskaldunok historian zehar beste hainbestetan egin dugun bezala, anaien arteko odola isurtzeko prest.

Saiatu zen Nafarroako Erregea bere lurraldeak berreskuratzen: asmo horretan, frantziarrek antolatutako 20.000 mertzenario alemandar eta suitzarrez batetik, eta Albako Dukearen erasotik ihes egitea lortu zuten 7.000 nafarrez bestetik osatutako armadarekin, Iruñea inguratzea eta setiatzea lortu zuen. Baina alferrik: gaztelarrek eta bere kideek 27 egunez iraun zuten Iruñearen barnean (defendatzaile horietako bat, bertan zauriak jaso zituen Loiolako Inazio genuen). Azkenik, Iruñea barruko gaztelarren laguntzarako armada berriaren etorrerak, Baztanerantz eta handik Frantziarantz ihesari ekitera behartu zituen nafar abertzaleak eta beraien erregea Joan.

Ihesaldi horretan datza Zizurkilgo armarrria. Albako Dukeak orpoz-orpo jarraitzen zituelarik iritsi ziren, bada, iheslari nafarrak. Belateko gain elurtsuetara, aipatutako 1512ko abenduko lehen egun haietan, hotzak eta goseak jota, etsita, ia osatutako armada zuten zain gain haietan, gordeta, Perez de Leizaur deiturikoa buru zuelarik. Euskaldunon arteko sarraski bat izan bada, hura: gutxi omen ziren, bere kanoiak bertan utzita, alde egitea lortu zutenak.

Eta hamabi kanoi horiek ditugu, bai, Gipuzkoako armarrrian, eskuduan, baita Zizurkilgoan ere. Belaten gertatukoaren "ohorez". Gaurko euskal begietarako tamalgarria den gertakizun hau Amaiurren bukatu zen, han galdu baitziren Nafarroako independetziaren alde borrokatu ziren azken abertzaleak.

Garaiak aldatu dira, bai, baina iraganeko borrokalari euskaldun haien omenez gaurko abertzaleak Baztango Amaiurren erakitako monolitoan burutzen dituzten omenaldietan norbaitek parte hartu beharko balu, zizurkildarrok ginatete, zor diegu eta. Hori da, hain zuzen ere, Sortzaile Elkarte Kulturaletik proposatu nahi genukeena: datorren abenduaren hasieran, urteurrenarekin batera, zergatik ez goaz Zizurkildik Amaiurrera? Han ikusiko dugu elkar.

ETA ZU, ANIMALIAZALEA AL ZARA?

Baserrian bizi izanda, gauza jakina da, animalien konpainian bizi beharra dagoela, eta gainera, gauza arrunta dela. Kanean ere ez dira gutxi txakurren bat, katuren bat, edota kaiolan sartuta txoria daukatenak: batzuek auzoko txabolaren batean, eta beste

batzuek etxeko balkoian edota gelaren batean. Horiei animaliazaleak esaten diete batzuek; beste batzuek berriz, era horretan edukita, animalia-riaren kaltetan egiten dutela diote. Eta zu, animaliazalea al zara? Eta animaliak etxean edukitzearen aldekoa?



BEÑAT IGERABIDE, IKASLEA. ADUNA.

Asko gustatzen zaizkit animaliak. Txakur bat eduki genuen etxean, baina lan handia ematen zuen. Oporretara joaten ginenean ezin genuen zaindu eta azkenean, lagun bati oparitu genion. Amak utziz gero, beste txakur bat edukiko nuke.



IGOR URRUZOLA, IKASLEA. ASTEASU.

Etxean ez daukat animaliarik, baina baserrian asko dauzkat, behiak eta ardiak gehienbat. Hala ere, gustora edukiko nuke txakurren bat edo katuren bat, gurasoen baimenarekin, noski. Gehien atsegin dudana animalia berriz, lora da. Gogoz zainduko nuke bat.



ANA ALVAREZ, NESKAMEA. ANDOAIN.

Bai, asko gustatzen zaizkit. Gehien gustatzen zaizkidanak txakurrak eta katuak dira, eta txoriak..., txoriak ez hainbeste. Etxean txori bat daukat kaiolan. Txakurrak eta katuak etxean edukitzeko gustatzen zaizkit, baina ez dut uste gurasoek horrelakorik onartuko luketenik.



ARAITZ GURIDI, IKASLEA. ZIZURKIL.

Izugarri atsegin ditut animaliak eta txakur bat eta arrain bat ditut etxean. Amari ez zaizkio gehiegi gustatzen, txakurra batez ere. Egun batean lorontzi guztiak hautsi zituen. Bestalde, etxeko guztion ardura da animaliak garbitzea eta jana ematea.



MAITE SÁNCHEZ, GARBITZAILEA ETA IKASLEA. BILLABONA.

Asko gustatzen zaizkit, baina etxean edukitzeko garbiak eta txikiak izan behar dute. Nire etxean txoria eta arrain batzuk bakarrik dauzkat. Baserri batean biziz gero, animalia handiagoak eduki ditzakezu.



BIXI IRULEGI, IKASLEA. ANDOAIN.

Bai, asko gustatzen zaizkit: katuak, batez ere. Hamar katu baino gehiago dauzkat nik baserrian. Hiru katakumeak dira. Bi txakur ere badauzkat: "Xaxpi" eta "Aixa". Badakit horrenbeste katu eta txakur kaleko etxe batean ezingo litzatekeela eduki, baina beharbada, txakur bat eta katu bat bai. Nik uste dut gurasoek ez liratekela aurka egongo.



ALOTZ
IZOZKINAK

KALE BERRIA, 9 - ☎ 59 07 06
ANDOAIN

Lirawna

KIROL JANTZIAK

Ama Kandida etorbidea, 6
Posta kutxatila 110 - ☎ 59 44 47
ANDOAIN



EZAGUTZEN AL DUZU ZURE HERRIA?

ASKOTAN EZ DAGO URRUTIRA JOAN BEHARRIK GAUZA POLITAK EZAGUTZEKO

Larraul eta bere inguruak badu ezagutzea merezi duen hainbat eta hainbat leku. Urrutiago joan gabe, zazpi eta zortzi orduko ibilaldiak egiteko aukerak ematen ditu mapa toponimikoari esker. Bidezidor baten barrena abiatu eta galtzeko arriskuan egonez gero, mapa hartu eta ez duzu arazorik izango. Maparen aurkezpena urriaren 29an egingo da herriko udaletxean. Oraingo honetan inguruak eskaintzen dituen leku aipagarrienak izendatu nahi izan ditugu.

Larraulgo mapa toponimikoaren barrena arakatzea pentsatu dugu, gune aski interesgarriak agertzen baitzaizkigu bertan. Baserri, erreka, etxe, basoak, gurdi bideak eta hainbat leku gehiago agertzeaz gain, herri honetako jende zaharrenak oroitzapenean gordetzen dituen leku preziatuak gordetzen dira. Hala ere, oroitzapena baino lekuko finkoagorik bada oraindik ere. Askotan gure aurrean ditugun gauzak izaten baitira ikusten zailenak. Larraul eta bere inguruko txoko asko dira, oraindik bertan iraun baina jendeak ezagutzen ez dituenak. Leku interesgarrietan arakatzuz, hor dauzkagu Txirringaingo

errota, Olazarko burniola, Suarraingo iturria edota Illurbiko Herriko Etxea.

TXOKO PREZIATUAK

Txirringaingo errota Larraulgo mugan dago. Nahiz eta gazteek eta helduagoek horren berri ez izan, bertako baserritarrek lurren arabera ezagutzen dituzte mugak. Olazarko burdinola Gipuzkoan dagoen bakarra da. Herritar askok ez du ezagutzen baina burniolak badu herritarrena eta berea den historia luzea. Garai batean Larraul eta Asteasuren artean banatuta zegoen. Gaur egun, zokoan geratu da eta bertaratzeko bidea sasiz josita dagoenez, jendeak ez du ezagutu ere egiten bai-

na balore izugarria du. Bide garbiketa ere egingo da jendearen esku egon dadin urteetan zehar gorde den altxorra. Bertan, istorio mitologikoekin egiten dugu topo, han baitaude, "Sansonen harria" eta baita "behatzak" deiturikoak ere. Beste lekuetan ez bezala, Olazarko burniolak galtzeko arriskuari iruzur egin eta bizirautea lortu du.


Illurbiko etxeak ere merezi du aipamenik. Ez da baserri soil bat, Herriko Etxea baizik. Duela 300 urte, bertan, hiru familia maizter bizi ziren eta garaiko diru iturria bertan zegoen, baserritarrek hortik jasotzen baitzuten euren zereginetarako dirua.

Gauza asko daude hemen aipatzea merezi dutenak, izan ere hoberena mapa hartu eta norberak bere begiez ikustea izango da, hori izan baitaiteke inguruak ezagutzeko erarik hoberena. Mapa eskuratu ahal izateko, urriaren 29an udaletxean aurkezpena egingo da eta jendeak zuzenean zer topa dezakeen ikusteko aukera izango du. Eguerdiko 12.15etan izango da aurkezpena.



Txirringaingo errota

ALFARO
J A T E T X E A
 EGUNEROKO MENUA
 Larramendi kalea z/g
 ☎ 59 40 27 **ANDOAIN**

KARROZERIAK LAGUNAK^S

TXAPA ETA PINTURA
 EGA ZERBITZU OFIZIALA
 FURGOI ISOTERMIKOAK
 HOZKAILUAK
 SORABILLA AUZOA - 53. POLIGONOA - ☎ 59 44 48 - ANDOAIN


GOSARIAK - APERITIBOAK BILARRA
GIRO EDERRA!!
 KALE NAGUSIA, 20 - ANDOAIN



4 MILIOI GARAPENERAKO

1992TIK ARI DA UDALA AURREKONTUAREN %0'4A EMATEN

Udalak erakunde ez gubernamentalekin hitzartu du aurrekontuaren %0'4a garapen bidean dauden herrialde batzuetako garapen proiektuak bultzatzeko. Sei erakundek jaso dute dirua, eta proiektuak Nikaraguan, El Salvadorren, Zairen, Txilen eta Saharan gauzatuko dira. Portzentaia, ahal dela, aurrerago handitzeko nahia agertu du Udalak Nazio Elkarteak gomendatzen duen 0'7ra iritsi arte.



Elena Arrizabalaga Ongizate saileko burua

“Euskal fondoa” erakundeak Nikaraguako mendebaldeko Rama hirian altzairuzko 125 bihitegien eraikuntza bultzatuko du. Gaur egun aletagirik ez daukatenez, landu eta jasotako bihia galtzeko arriskuaz, azkar eta merke saltzera behartuta daude. 500.000 pezeta jaso dute. “Mugen gaintetik” erakundeak El Salvadorren Chalatenango departamenduan ureztapen sistema bat bultzatuko du. Beste 500.000 pezeta eskaini zaie. Lehen ere Andoaingo Udalaren dirulaguntzaz inguru berean etxebizitzak eraiki ziren. “Medicus mundi” erakundearena da hirugarren proiektua. Zairen burutako da eta “Bamama Bongisa” (Amak gero eta hobeto) izeneko erakundeari eskainiko dio 1.250.000 pezetako dirulaguntza.

DIRULAGUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIOA HELBURU

“Honek” erakundeak Nikaraguan egin ohi du lan, eta gerraren ondorioz biztanlegoa oro har, eta batez ere haurrak dauden miseria egoerari aurre egin nahi dio. Egoera larrian dauden haurrak jasotzen dituen etxea dago Madriz departamenduan eta etxea mantentzeko kooperatiba txiki batzuk bultzatu nahi dituzte. Horretarako erabiliko dira 500.000 pezetak. “Copihue” erakundeari Txilen lanean jarrai dezan 150.000 pezeta emango zaizkio. Eta kasu honetan ere bortxatzen eta tratu txarrak ezartzen dizkieten haurrak jasoko dituen etxea eraikitzeko erabiliko da dirua. “Asociación Vasca de Amigos del Pueblo saharai”k 1.000.000 pezeta jasoko du. Saharaiarrak 1975 urteaz geroztik bizi dira errefuxiatu kanpamenduetan. Une honetan beren errepublika izango dutenerako zenbait herritarrei hezkuntz proiektuak zabaltzen ari dira. Oraingo honetan 9 hilabetez hezkuntza profesional ikastaroa eskainiko zaio pertsona bati.

Ongizate saileko burua den Elena Arribillagak prentsaurrean azaldu duenez, dirua emateaz gain, herritarrek laguntzaren beharraz kontzientzia har dezaten nahiko luke Udalak.

GINEKOLOGIA ZERBITZU BERRIA

POSIBLE DA URTE AMAIERARAKO BERTAN IZATEA

Osasun zentroko koordinatzailea den Iñigo Agirrek dioenez urte amaierarako, ziur aski, eguneroko ginekologia zerbitzua izango da herrian. Aspaldi jotzen zen beharrezkotzat, eta bildu berriak diren 3.000 sinadurek indar handiagoa eman diote eskariari.

Gaur egun herrian emaginak eskaintzen du egunero zerbitzua, ginekologia eta berari dagozkion planifikazio, prebentzio eta azterketa lanak asteen behin egiten dira sei ordutan, eta patologia azterketak Tolosan egiten dira. Hori dela eta emakumeek, kasu batzuetan, luze itxaron behar izaten dute harrera egiten zaien bitartean.

Zerbitzu berrirako gela egokituta dago osasun zentroan, eta Iñigo Agirre baikor agertu da. Bestalde, sinadura bilketaren ondoren Osakidetzako ordezkariak eta Udal ordezkariak bildu egin ziren eta are indar gehiagoz egin dute eskaria. Osasun zentroan adierazi digutenez, gainera, ginekologia zerbitzua bertan iraunkor izateak asko erraztuko du diagnosiak eta tratamenduak azkarrago egitea, izan ere, osagileen arteko harremana eta koordinazioa estuagoa izango da.



LANBIDE HEZIKETA 1945-1995

LA SALLE-BERROZPE: "ORAIN DELA 50 URTEKO ASMOA GAURKOTU DUGU"

Apostu handia egin du La Salle-Berrozpe ikastetxeak bere berrogeita hamargarren urtean: eskura dituzten baliabide berri eta moderno guztiekin, eta beti nagusi izan duen giza ekimenaren laguntzaz, egungo lanbide heziketari aurre egitea, beti ere gizarteko jende xehearren, gaztediaren eta herri honen zerbitzuan. Urtebetetzea ospatzeko egun hauetan emango zaie hasiera ekintza saio ugari eta maiatza bitartean iraungo dute. Ama Kandidaren beatifikazioak emango die amaiera. Kultura, enpresa, kirola eta aisia arloko ekintzak antolatu dituzte. Ospakizuna eta ekitaldiak herri guztiari irekita egongo dira.



Hasierak asmoa araberrituz

XVIII. mendean daude La Salle ikastetxearen hastapenak: behartsuen seminario gisa eratu zen orduan. "Gaur egun Europan teknologia, enpresa mundua, gizartea bera, dena egiten da izugarritzko abiadan", esan digu Mikel Balerdik zuzendari berriak, "eta batzuek ezin diote abiadari horri jarraitu". Filosofia berberarekin ospatu nahi dute urtemuga eta gaurkotu nahi dute orduko asmoa. "Gaur baliabide eta medio berriak dauzkagu, baina giza ekimena eta gogoia berberak dira", gaineratu digu Mikelek La Salle-Berrozpe ikastetxea, ikastetxe irekia dela azpimarratuz.

"Gu bezalako eskolak urte askotan Euskadiko enpresen zutabe garrantzitsuenetako bat izan dira" dio Mikelek. Orain ere gizarteak eskatzen duen teknologiaz baliatuta, helburu bera daukate, baina giza heziketa ahaztu gabe: "Gure ikasleak tekniko on bihurtzeaz gain, baloredun pertsonak izatea nahi dugu".

ESKUALDEAN AINTZINDARIAK

1.200 ikasle ditu gaur egun eskolak, eta urte luzeetan Tolosatik hasi eta Donostia bitarteko lanbide eskola bakarra izan da La Salle-Berrozpe. Gaur egun etengabe daude enpresekin harremanetan. Poliki-poliki lanbide heziketak gizartean gero eta pisu handiago duela uste dute, eta irakas-kuntza polibalentea eskaintzen dute: "Familia profesionalak dira oinarria -azaldu digu Mikelek- mekanika, elektronikoa, administrazioa, ondoren espezializazioa enpresaren eskuetan dago".

Gaur egun ikasleek azkenengo urtean lantegietan egiten dute lan, eta eskolan lan-poltsa zerbitzua ere badaukate, enpresen eskarien arabera, jendeari lana eskaintzeko.

EGITARAUA

- Urriak 16:** 50. urteurrenaren hasiera ekitaldia 19.00etan. Hitzaldia: "Lanbide heziketa berria, etengabeko formazioa eta ikastetxeak".
- Urriak 18:** Mahai-ingurua: "Giza faktorearen garapena enpresetan eta gizartean", 19.00etan.
- Urriak 20:** Panel dinamikoa: "La Salle-Berrozpe fundazioaren historia, lanbide heziketa eta bere eragina ingurunean". Zenbait ikasle ohi, kultura, musika eta kirola eta beste arlo batzuetako ordezkariak bertan izango dira. 19.00etan.
- Urriak 22:** **Instituzio eguna.** Meza nagusia San Martin elizan 11.00etan. **Monumentu oroigarriaren inagurazioa** 12.30etan. Inaxio Oliberi hezkuntza sailburua bertan izango da. **Lehen eta bigarren txanden omenaldia** 13.00etan. Herri bazkaria Arrate pilotalekuan 14.00etan.
- Urriak 27:** **Donostiakoa orfeoaren emanaldia** San Martin parrokiaren 20.00etan.




*ogi berezi eta artesauak
...
etxerainoko zerbitzua*

OGI ZURI

OKINDEGIA, S.L.

Lizarrate-errea, 32 / Elizmendi auzoa,
20159 ASTEASU / ☎ 693294 - 691896

OGI · GOXO



- TARTAK • IJITO BESOA • PASTELAK
- TEILAK-ZIGARRILOAK
- HOJALDREAK • MAGDALENAK

Kale Nagusia, 26 - Tel. 693294 - BILLABONA




I. MENDI ASTEA

HITZALDIK ETA MENDI IRTEERAK ANTOLATU ZITUZTEN

Irailaren hemezortzian hasi eta hilaren hogeita bostean amaitu zen Asteasuko I. Mendi astea. Herriko mendizaleek eta Udalak antolatu zuten ekimena, mendizaletasuna bultzatzeko eta mendian ibiltzen direnen pasadizuak ezagutarazteko. Jende ugari hartu zuen parte Kultur Etxean eman ziren lau hitzaldietan, herrikoak zein kanpoakoak.

Ramon Agirrek eman zuen lehenengo hitzaldia, zazpi lurraldeetako gailurrak eginak dituen mendizale ataundarrak. Alaskari buruzko ikusentzunezko hitzaldia eman zuen, eta McKinley mendia nola igo zuen azaltzeaz gain, bertako egoera eta kultura ere azaldu zituen. Gainera, aste osoan zehar ataundarraren "Lurra" izeneko argazki erakusketa egon zen ikusgai. Aipaturiko gailurraren igoerako argazkiek osatu zuten erakusketa, lurralde ezberdinetako herri eta jendearen argazkiekin batera. Biga-



ren hitzaldia berriz, Kasirimo Bengoetxeak eta Ramon Garate medikuak eman zuten, mendiko seguritateari buruz. Hurrengo ikusentzunezkoa Felipe Uriartek eskaini zuen, Baghirathi II mendiari buruzkoa. Ondoren, eskaladari buruzko solasaldia izan zen. Azken hitzaldia Imanol Goikoetxeak eman zuen, Erniora igotzeko bide zaharrak eta bertako erromeriaren nondik norakoak azalduz.

MENDIZALETASUNA BULTZATU NAHI

Astea ondo bukatzeko, asteburua Ernion igaro zuten hamabi urtetik aurrerako gazteek. Egia esan, antolatzaileak baino ez ziren joan, eta beren esanetan "hemendik aurrera irteera gehiago antolatuko ditugu, gazteak mendira joateko ohitura har dezaten".

GAS BILTEGIAK JARTZEKO LEKUA ERABAKI DUTE

SUCHARD PABILOIAREN ATZEAN IPINIKO DITUZTE

Iraila hasieran eginiko Udal batzarrean erabaki zuten gas zisternen kokapen berria. Iñaki Amenabar alkatearen proposamena izan zen biltegiak Asteasu bidean dagoen Suchard pabiloiaren inguruan ipintzea eta Udalak aho batez onartu zuen proposamena. Azkenean, biltegiak jartzeko toki aproposa aurkitu dute.

Uda hasieran kendu zituzten gas biltegiak Elizmendiko maldatik. Izan ere, herritar ugari kexatu zen zisternen kokatuta zeuden lekua egokiena ez zela eta. Zisternetan eginiko pintadek, sinadura bilketak eta hainbat ekintzen bitartez agertu zuten herritarrek beren haserrea. Gas propanoa herrian jartzeko lanak geldo eta irregulartasun handiz burutu zirela zioten. Gauzak honela, Udalak kexa eta eskakizunak bildu zituen, gas biltegiak Elizmenditik kentzeko erabakia hartuz.

Zisternen herritik gertu geratzen zirelako jarri zituzten biltegiak Elizmendiko maldan. Gainera, kostua ere merketzen zuen, nahiz eta ingurunea ez izan egokiena. Berehala hasiko dira biltegiak leku berrian jartzeko lanak.



LANBIDE EZBERDINEN ARTEKO KOORDINAKETAK

GASA ETA BEROGINTZA

KALE NAGUSIA, 59 - ☎ 59 38 44
ANDOAIN

- ITURGINTZA
- GASA
- BEROGAILUAK
- ELEKTRIZITATEA
- IGELTSARITZA

KIROLETARAKO BEHAR DEN GUZTIA

KIROLAK EDURNE

KALETXIKI, 6 - ☎ 59 19 58

ANDOAIN



NAZIOARTEKO ERREBOTE TXAPELKETA

FINAL ERDIAK BILLABONAN

Billabona-Amasa

Gipuzkoako federazioak, Billabonako Bear-zana elkarteak eta Zubietako Joko-Gargi elkarteek antolatuz, duela 35 bat urtez geroztik Nazioarteko Errebote Txapelketa ospatzen da Billabonan. Aurten, irailaren hamarrean hasi eta urriaren 22an egingo da errebote finala. Gipuzkoan Billabona eta Zubietako dira errebotea jokatzen diren herri bakarrak eta antolatzaileen asmo nagusia errebotea suspertzea da.

Gerra ostean errebotea galtzar zegoen. Gerra zela eta, Gipuzkoan lehenagotik hamairu herritan jokatzen zen kirol honekiko zaletasuna poliki-poliki galdu egin zen, desagertu arte. Billabonak aspaldidanik izan du kirol honekiko zaletasuna eta kirol honen desagertzea gerta ez zedin nazioarteko txapelketak egiten hasi ziren. Euskal Herriko taldeekin batera Espainiako nahiz Frantziako taldeak etorri izan dira jokatzerara. Aurten Ipar eta Hego Euskal Herriko taldeak besterik ez badaude ere, batik bat Frantziatik urtero etortzen dira errebote txapelketara.


Aurten, Baiona, Hazparne, Ustaritz, Billabona eta Zubietako taldeak daude elkarren arteko lehian. Orain arte, Billabonako jokalarien zortea oso ona izan ez den arren, lehiaketan dauden herritarrak oso gazteak dira eta jokorako trebetasun handia agertzen ari dira.

IKUSKIZUN PAREGABEA

Errebotea ez da gure artean oso ezaguna. Denboraren poderioz herri ezberdinetan indarra galdu duen arren, ikuskizun paregabea eskaintzen du.

Jokatzeo eran ez, baina itxuran eta puntuak kontatzeko eran tenisaren antza duen jokoa da errebotea. Bost kideko taldeak jartzen dira frontoiaren bi aldeetara eta taldekideetako batek eskuz ateratzen du pilota. Beste kide batek pareta joko eta lehen botea baino lehen jaso behar du. Bi aldiz huts eginez gero, tantoa galtzen du. Bitarte horretan aurkako taldeak pilota geldiaraz dezake eta joko berdina bi aldiz eginez gero berea izango da tantoa. Puntuaketa tenisaren bezala egiten da eta hamairu joko egin behar dituzte irabazteko.

1971tik Billabonak ez du errebote txapelketarik irabazi. Urte hartan, Sorondo, Gõñi, Idaurre, Santamaria eta Arrillaga izan ziren irabazi zuen taldearen partaideak. Aurten, dirudienek ez dira garaile izango baina errebotean dabilzanak oso gazteak direla kontuan hartuz, erreboteak Billabonan etorkizun handia duela esan genezake. Joxean Agirrek esan bezala, euren asmoa Billabonan errebotea suspertzea da eta bide onean daudela uste dute. Eguraldiak laguntzen badu, final erdiak Billabonan jokatuko dira urriaren 15ean eta finalak aurten Zubietan izango dira hilaren 22an. Euria egin badu, partiduak atzeratu egingo dira.



Urriaren 15ean final erdiak



XIXORI

BELARDENDA

DIETETIKA ZENTRUA
KONTSULTA NATURISTA

Ondarreta, 9 - TELF. 59 01 99 - 20140 ANDOAIN

BENITO

HARATEGIA
URDAITEGIA

KALE NAGUSIA, 22 ☎ 69 11 49
ARROA KALEA, 4 ☎ 69 13 50

BILLABONA



ELIZPE ELKARTEA, JUBILATUEN TXOKOA

MANUEL IGLESIAS: "LOKALA BERRITU ETA EGOKITU BEHARRA DAGO"

Kultur Etxearen azpian eta Zentro tabernaren alboan dago Elizpe elkarte. Hirurehun jubilatutuen inguruk ordaintzen dute urteroko kuota, baina elkarteko lehendakaria den Manuel Iglesiasek esan digunez, gutxi dira eguneroko elkartera etortzen direnak eta are gutxiago, ekintzak antolatzen dituztenak. Hori, betiere Manuelen hitzetan, lekua egokia ez izateak eragiten du.

"Dena eginda eman behar zaie" kexatu zaigu Manuel, jendeari txangoak eta bazkariak atsegin zaizkiola azalduz. Izan ere, orain arte gauza gutxi egin dituzte eta ondorioz, jendeak ekimenetan parte hartzeko ohiturarik ez du. Hori da behintzat otsailetik lehendakari denak esan diguna, "jendearen parte hartzea bultzatu nahi dut" gaineratuz. Horrexegatik jarri du jubilatuen iritzia jasotzeko gutunontzia, elkarteko juntak kontuan eduki beharreko kritikak eta proposamenak biltzeko. Junta batek zuzentzen ditu Elizpeko iharduerak eta urtero aldatzen dute lehendakaria, hautaketa jubila-

tuen biltzarren eskuetan dagoelarik. Hileko lehenengo astelehenean biltzen dira eta bertan erabakitzen dituzte egin beharreko ekintzak.

"Gimnasiako klaseak antolatu ditugu ikasturte honetarako eta eskulan ikastaroa ere egin nahi dugu" esan digu Iglesiasek urte honetarako dituzten asmoak azalduz. Ekintza horiek egungo dinamikaren hausteko antolatu dira, egun, telebista ikusteko eta kartetan jokatzeko soilik erabiltzen baitute elkarte. "Arazorik larriena lekua da" adierazi digu Iglesiasek "sukaldaritza ikastaroa egiteko edota beste edozertarako lekurik ez dugu" gaineratuz. Izan ere, elkarte nahiko txikia da eta zerbitzua tabernara mugatzen da askotan.

ILEAPAINDEGI ZERBITZUA

Elizpe jubilatuen elkarteari, Diputazioak eta Udalak ematen dizkie dirulaguntzak. Beraz, Udalarik eskatu diote ileapaindegiaren kostuak ordaintzeko dirua. Izan ere, zerbitzu hori eskaini nahi dute Elizpekoek, bertako emakumeentzat zein gizonezkoentzat. "Billa-bonan badute zerbitzu hori eta guk ere eskubide bera dugu" esanez arrazoitu




Ekintza berriak antolatu nahi dituzte

digu Manuelek beren eskakizuna. Zerbitzua, egunerokoa eta merkea izatea nahi dute eta horretarako, ileapaindegi txiki bat egokitu behar da elkartean. Aurrekontua ere aurkeztu zuten Udalean, ileapaindegiaren kostuak zein horniketarenak zehaztuz. Udalaren erantzuna, hasiera batean, aurrekontua garestiegia zela izan zen eta begiratuko zutela zer egin zezaketen. Orain ere antzeko erantzuna jaso dute. "Ea eza-gutzera ailegatzaren garen!" esan digu Manuelek.

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



-
-
-
-

kutxa fundazioa
fundación kutxa

- gipuzkoa donostia kutxaren
- gizarte-ekintza
- obra social
- de la caja gipuzkoa san sebastián

ADUNA

HOL-ATZ: PIPIEN AURKAKO TRATAMENDUA

EUROPAN HORRELAKO TRATAMENDUAK ERABAT ZABALDUTA ETA ARAUTUTA DAUDE

Julian Lizarraga zizurkildarra arotza da berez. Duela sei urte ireki zuen Billabonan Hol-Atz enpresa egurrezko altzarietako pipien aurkako tratamendua eskainiz. Gaur egun Adunan ari da lanean. Ingalaterran hasi eta Europan orain dela 25 urtez geroztik horrelako tratamenduak egiten dituzten lantegi ugari daude. Julian Lizarraga bakarrenetakoa da gure artean. Antzinatekoak pipiz garbitzera eramaten duten gero eta bezero gehiagok jotzen dute Hol-Atzera.

Hasieran etxeak egitean edo eraberritzean pipiz jandako oholtzak garbitzen hasi ziren, izan ere Julianek berak esan digunez, askotan egur berria ez da uste bezain ona izaten, eta hezetasunetik babesteko ere balio duen tratamendua ematea nahi izaten du jendeak. Azken bolada honetan berriz, antzinatekoak jarri dira oso modan eta, hasieran uste ez bezala, gero eta jende gehiagok jotzen du Hol-Atzera antzinatekoak pipiz garbitzera. Bestalde, gero eta gazte gehiago dira, altzari berriak erosi ezin ez, edota kapritxoak, altzari zaharrak erosi, pipia kendu, eta itxura berri bat eman ez eraberritzen dituztenak. "Poztekoa izan ohi da, gainera, horrenbeste jende gazte ikustea", esan digu Julianek.

Hol-Atzen ez dute oholtza zahar bateko edota antzinateko altzari baten pipiaren aurkako tratamenduan prezio ezberdintasunik egiten: "Izan ere, sekulako balio sentimentala daukan aiton-amonen altzari batean egindako lanari prezioa jartzea zaila izango litzateke", azaldu digu.

LEHEN XIRINGAZ ZULOZ ZULO EZARRI BEHAR ZEN TRATAMENDUA

Garai batean altzariak eraberritu nahi zituztenek ez zuten lan makala hartzen: xiringa batez altzariko zulo guztiak estali behar ziren pipia akabatzeke; orain berriz, makina luze batean sartu eta egurreko poro guztietan sartzen da pipiak akabatuko dituen gaia. Berez denbora gutxiko lana izan ohi da, dena den altzariak egun batzuetan Hol-Atzen



Pipiak akabatzeke sistema berria

bertan uztea komeni izaten da, pipien aurkako gaiak utzitako usaina ez baita edonolakoa. Dena den, egur mota bakoitzak denbora ezberdina eskatzen du: haritzak esaterako, pinu egurrak baino itxiagoak dauzka poroak, eta tratamendu luzeagoa ezarri beharra dago.

BEHIN-BETIKO TRATAMENDUA

Pipiaren aurkako behin-betiko tratamendua da gainera: "Egurra gero eta garestiagoa da", esan digu Julianek, "eta era horretan lasai jar daiteke altzaria edozein tokitan". Izan ere, egurra berez, ez da zaila pipia agertzea, normalean bernizik gabeko ataletan, altzariaren barruko txoko ezkurtuetan ezartzen da pipia, eta konturatzerako altzari osoa har dezake.

Euskal Herrian gauza berria da pipiaren aurkako sistema moderno hau, baina Europa eta Amerikan, zabaldua ezezik, araututa ere badago. Ekainean aldatu zuten lekuz Hol-Atzekoek, egun hauetan pabiloi berria margotzen eta txukuntzen ari dira. Eta orain arte jende artean izan duten harreraz pozik daude.



Boutique ARAGAR

Gizon nahiz emakumeentzako jantziak

PREZIO BEREZIAK

Elizondo plaza 1 - Tel. 59 23 09 - ANDOAIN



ESPETXETIK ITZULI BERRIAK

FERMIN LAGALA ANDOAINDARRAK IA 11 URTE ETA JUAN MARI ETXEBERRIA BILLABONATARRAK IA 10 URTE EMAN DITUZTE PRESO

Orain dela lau hilabete irten zen Fermin espetxetik; Juan Mari berriz, abuztuan bertan. Andoaindarrak 40 urte dauzka, eta 32 jaiotzez Tolosakoa den Juan Marik. Fermin 1982. urtean ere urte t'erdia egon zen preso. Gazte zirela espetxeratu zituzten eta bienbitartean hamarren bat espetxe ezberdinetan egon dira. Urte luze hauetako esperientziaz, bizimoduaz, bizi-min eta poz txikietaz galdezka jo du beraiengana. Euskal preso kolektiboa izan dugu, gehienbat, hizpide, besteak beste, *erakundeak (ETAk) bere komunikatuen bitartez behin baino gehiagotan eman duelako egungo Euskal Herriko egoera politiko eta sozialaren berri, hala nola alderdi politikoei eta gainerako mugimenduei buruz*". Era horretan, bada, egin du AIURRIK espetxetik itzuli berriak diren Fermin eta Juan Mari-ekin elkarrizketa:

- **Aiurri:** Oso aldatuta aurkitu al duzue berria?

- **Fermin:** Nik ez nuen Txistokiko zubia ezagutzen, ibaia dragatuta ere ikusi gabe nengoen, eta ez nituen tren gerala atzeko etxeak ezagutzen.

- **A:** Eta lehenago lagunak?

- **F:** Egia esan, lehenago lagunak ez dut inon ere aurkitu. Askok ezkondu eta kanpora joan dira bizitzera. Gazteak berriz, ez dituzte ezagutzen, gurasoen edo anai zaharren baten erreferentzirik gabe.

- **J. M.:** Nire lagun gehienak ezkondu daude.

- **A:** Gaur egungo gaztedia zer iruditu zaizue? Ezberdina?


- Ezker abertzalearen inguruan lehen baino askoz ere gazte gehiago dabilzala iruditu zait neri.

- **J.M.:** Billabonan orain dela bederatzia urte HB besterik ez zegoen, orain berriz, Amnistiaren Aldeko Batzordea dago, Senideak, Jarrai, Egizan. Eta nik ere jende gazte asko ikusi dut.

- **A:** Ze arazoei egin behar izaten zaie aurre gartzelatik irten ondoren?

- **J.M.:** Integratzea ez da zaila izan. Nik behintzat, lagun on ugari izan dut inguruan eta. Bestalde, gutunen bitartez, kanpoan ere lagun berriak egin dituzte kartzelan egon naizen bitartean, eta irten naizenean hor izan dituzte.

- **F:** Lanari dagokionez, ni oraindik ez naiz asko mugitu, baina argi dago edonorentzat ere, gaur egun zaila dela lana lortzea. Nik lehen Billabonako Subijanan egiten nuen lan, hala ere espetxeratu aurretik geratu



Fermin Lagala

nintzen langabezian. Ez dakit espetxetik irten berriak izateak eragingo ote duen lana aurkitzeko orduan.


**“LAGUNEZ
INGURATUTA
EGON GARA
ORAIN ARTE ETA
INTEGRATZEA
EZ DA ZAILA
IZAN”**



**ELEKTRATRESNAK
SUKALDERAKO ALTZARIAK**



Arteta kalea, 1 eta 3
☎ 59 12 26 - Faxe 30 03 45
ANDOAIN



Altzariak
KALETXIKI, 6 ANDOAIN
FAX ETA TELF. 59 07 61

- **A:** **Nola igarotzen dira urteak espetxean?**

- **F:** "Obitu egiten" dela esatea gebiegitxo esatea litzateke. Eta beti ere zein espetxetan eta zein gradutan zauden kontuan hartu behar da. Lehenengo graduan egonda egunean ordubete patoria irtezeko eskubiderik baino ez duzu. Bigarren graduan berriz, eta espetxe batzuetan, aukerak izan arren, era guztietako eragozpenak jartzten dizkizute, eta ezinezkoa da ikasketak jarraitzea, ikastaroak egitea edota eskulanak egitea. Ikasten dutenek normalean goiza aprobetxatzen dute ikasteko, eta arratsaldean kirol pixka bat egiten dute, edo ahal den bezala betetzen da denbora.

- **J.M:** Dena den, askotan edozein ekintza egiten hasita ere, jarraian eteten dira. 1989. urteaz geroztik dispersioaren politika hasi zenetik adibidez, ikasketak egitea zailagoa da. Bestalde, giza-zientzietan beti jartzen dira besteetan baino eragozpen gehiago, eta askok adibidez, zuzenbidea ikasten hasten dira.

- **A:** **Zuek nola egon zarete?**

- **F:** Azkenengo urteak bigarren graduan egin ditut. Baina lehenengo graduan ere dexente egon naiz. Gainera bienbitartean "txapeoak" eta gose grebak ere egin izan ditut.

- **J.M:** Nik ere bi graduak ezagutu ditut. Baina barruan egon naizen bitartean euskara ikasi dut, behintzat. Taldeak egin eta klaseak antolatzen genituen.

- **A:** **Reinsertzio politika eta birugarren graduari buruz zer iritzi duzue?**

- **J.M:** Reinsertzioa aipatzen denean agintariek eta medioek askotan esaten dute presoek beren bilakaera propioaren ondorioz aukeratzen dutela bide hori, baina hori ez da egia.

Aukera hori egitearen arrazoia beste-lakoa da: presoekiko errepresioa, alegia. "Erakundeak" horrelako jokaerak gizalegez ulergarriak direla dio, nahiz eta ez onartu. Inola ere onartzen ez duena da, era horretan kalera irten eta "erakundearen" aurka egitea.

"REINSERTZIOA EZ DA PRESOAREN BILAKAERAREN ONDORIO, ERREPRESIOARENA BAIZIK"

- **A:** **Eta nola dago euskal preso kolektiboa?**

- **F:** Inoiz baino indartsuago dagoela esango nuke nik.


- **A:** Gainerako preso sozialekin ze barreman izan obi duzue?

- **F:** Elkarrenganako errespetuzko distantzia izaten da gure artean. Nola bait esateko, zirikatzailearen bat ez bada, bakean uzten gaituztela esan daiteke. Bestalde, gurekiko interesa agertzen dutenak oso gutxi dira. Askok eta askok oso maila kultural baxua daukate, eta ezer gutxi azal daiteke horrelako kasuetan.

- **J.M:** Dena dela laguntza eske askotan jotzen dute guregana preso sozialak: dirua eskatzeko, baimenak direla, errekursoak direla... Hala ere, Espainiako kartzelak heroinazalez josituta daudela esan behar da, eta barruan ez dela merkaturik falta. Horrek zer nolako egoerak sortu obi dituen edonork imajina dezake.


- **A:** **Kanpoko gertaeren berri izan al duzue preso egon zareten bitartean?**

- **J.M:** Nire lagun batek zioen bezala, gartzelan duela bi urteko albisteak ere berriak dira. Bataz besteko astebeteko atzerapenarekin irakurtzen dira albisteak, baina gutxi gorabehera, bisiten bitartez eta, nabikoa informaturik egoten garelako esan daiteke.



Juan Mari Etxeberria

Euskal Herriko egungo egoera politikoaz muturren arteko distantzia areagotu egin dela baino ez digute adierazi, eta alderdien politikak eta jarrerak hobeto zehaztuta daudela. Bakearen aldeko taldeei edota ELKARRI buruz, "erakundeak" esandakoa baino gehiago ez dute esan nahi izan, eta Irlandako eredua, distantziatik errespetuz begiratu besterik ezin dutela egin. Bukatzeko, Jaenen gose greban dauden euskal preso politikoak gogoratu eta agurtu egin nahi izan dituzte.



BORDA
Jatetxea

A N D O A I N

FRANCISCO MENDIKUTE
HARATEGIA



Kale Txiki, 15 - ☎ 59 02 58 - ANDOAIN

ANDOAIN

“BIZI NAIK LEGE ZORROTZAK”

AGUSTIN ZINKUNEGIREN BIZIPENAK ETA IBILERAK JASO DITUEN LIBURUA

Orain dela 30 urte baino gehiago hasi zen egunerokoa idazten. Inondik inora espero ez zuenean, Aita Zabalak bere idazkera ezagutu zuen eta Sendoa argitaletxeko Auspoa bilduman liburu bat kaleratzea proposatu zion. Andoainen eta inguruetan hitz egiten den euskara erabili du liburuan. Eta, ziur aski, Agustinen adin beretsuko batek baino gehiagok ezagutuko du bertako pertsonairen bat edo beste. Txikitan apenas eskolara joan zen, baina irakurle amorratua izan da beti Agustin. Txomin Agirreren “Garoa” eta “Kresala” dira andoaindarraren ustetan euskal literaturaren ekarpenik onenak.

*“Zama astun samarra
kendu dut burutik
zalla izango nula
banekin aurretik
nekoso jardun arren
amaitu orratik
nere lagunen oroiz
eskaintzeagatik”.*

Bertso horrekin eman dio Agustinek liburuari hasiera. Osatzeko hartu dituen lanagatik nekatuta, baina pozik.

1914. urtean jaio zen Agustin Zinkunegi Goiburuko Urrizti baserrian. Gaztetan bai baserrian bai mendian artzain ibili izana da. Beste ofizio batzuk ere izan ditu, baina jubilatu aurretiko azkenengo 23 urteak Bertxingo zentral elektrikoko etxola batean eman ditu makinak zaintzen. Eta esan digunez lan horrek bere irakurzaletasuna lantzen asko lagundu zion, izan ere, lanean ordu asko eman behar izaten zituen arren, tartean irakurtzeko astia ere izan ohi zuen.

Agustin bi urtez baino ez zen eskolara umetan joan, eta gauza handirik ikasteko aukerarik ez zuen izan. Hala ere, etxean beti ezagutu du irakurtzeko zaletasuna: garai bateko “Zeruko Argia”-ri esker egin zituzten etxeko guztiek beren irakurketa saio atseginenak. Gerra ondoren eta lanean hasi zenean gogoz aurreratzen zuen dirua, orduan, artean urriak ziren euskarazko liburu ale bakarrak erosteko. Txomin Agirreren “Garoa” eta “Kresala” ditu liburuetan gogokoena. Behin baino gehiagotan irakurri ditu, hala nola Jon Etxaideren “Gorrotoa lege” edo “Joanak joan”. Gaur egun oraindik ere garai bateko irakurketei jarraitzen die. Literatura modernoak ez du erakartzen.

EGUNEROKOA

1958. urtean hasi zen egunerokoa idazten. Orain dela urte batzuk Aita Zabala euskaltzale eta idazleari gutun bat idatzi zion Auspoa bildumako



falta zitzaizkion liburuak, ahal izango balitz, bidaltzeko eskatuz. Aita Zabalar, nonbait, txukuna eta jatorra iruditu zitzaion Agustinen idazkera eta idazten jarraitzeko animatu zuen, andoaindarraren bizitzaren pasarte batzuk bilduko zituen liburu bat argitaratu ematea proposatu zion arte. Era horretan Aita Zabala laguntzaz argitaratu berri du “Bizi naiak lege zorrotzak” bere lehen liburua.

**ER NIOBIDE**
JUAN CARLOS ARICETA
ZURGINDEGIA
-Erreformatik oro har
-Neurrira egindako armairuak
Agaraitz auzoa, z/g - ☎ eta Faxa 69 26 75
BILLABONA

**HERCULES**
Aseguruak ARGENTARIA
Amala Kortajarena
Bulandegi bidea, 6 - Telf. eta Faxe 69 37 34
Z I Z U R K I L

**Gema**
Loradenda
-RATEGIEN MANTENUA
KANPO NAHIZ
BARRUKO LANDAREAK
Kale Nagusia, 5 - ☎ 69 28 98 - BILLABONA

AITA ZABALAK ANIMATU ZUEN IDAZTEN JARRAITZERA

Lau ataletan dago liburua banatuta: "Jaiotetxea", "Guda-ibillerak", "Lanean" eta "Mendi-ibillerak". Izenburuek adierazten duten bezala oroitzapenak albainduz bere bizitzako pasarterik esanguratsuenak bildu ditu bertan: familia, Gerra Zibileko une latzak, bizitzako urte gehientsuenak bete dituen lana, eta betidanik maite izan duen natura eta mendia, batez ere. "Bizi naiak lege zorrotzak", liburuaren izenburuak, bestalde, ezin hobe adierazten du, bitzitzen ikas-teak zein ikasgai latzak eta gogorak pasarazten dizkion edonori. Atal bakoitza prosaz eta bertsoan idatzitako pasarte motzez dago osatuta. Motzak nahiago ditu irakurterreza-goak direlako.

"EUSKARA EUSKARAREKIN EGIN BEHAR DA ETA EZ ERDERAREKIN"


Andoain eta inguruko euskara erabili du Agustinek liburuan. Egunkari batean idatzita argitaratu denaren aurka, Agustinek argi zehaztu digu bera ez dela euskara batua-ren aurka. Era berean, ordea, egungo euskara batuak euskara berez ezer gutxi aberastu duela iruditzen zaio-

la: "Nik egungo euskara batua ulertzeko, gaztele-raz nagoena baino jantziagoa egon beharko nuke", adierazi digu. Hau da, erdal kutsu handia hartzen dio egungo euskarari. Hala ere, euskara batzeko Arantzazuko egunetako eztabaidak jarraitu zituen bezala, gaur egun Euskaltzaindiaren aldizkariaren bitartez ere jarraitzen du euskararen inguruan ematen den gora-behera oro.

BORONDATE IRMOA

Borondate irmoa dauka Agustinek: egunerokoa osatu behar zuela eta halaxe egin zuen; bertsoan ere egin zezakeela, eta bertsolari bati eta besteari erreparaturaz lortu du gaur egun bertso bikainak osatzea; eta azkenik, Gipuzkoako herri guztiak ezagutu behar zituela eta halaxe egin du, bizikletaz nahiz oinez. Guzti guztiak ezagutzen ditu, eta Andoain Gipuzkoako ederrena ez dela aitortu behar izan digu, nahiz eta Andoaingo eliza aurreko enparantzaren parekorik ez omen duen beste inon aurkitu.

Agustinek bere liburua osatzeaz gain, beste idazle batzuen lanei ere ez die laguntza makala eskaini: besteak beste, Xabier Lasaren "Gerra Zibila andoaindarren begietatik" liburuko hainbat pasarteren protagonista zuzena izan da, eta "Andoaingo Toponimia" liburua osatzeko Amaia Usabiaga egileari hainbat eta hainbat ibilaldi egiten lagundu izan dio.



Irakurle amorratua da Agustín

Elkarrizketa nola bukatu ez genekiela Agustinek egun berean idatzitako olerki sorta eskaini digu. Gogoz irakurri dizkigunen artean Agustinen izana eta esana ongi adierazten duten olerki hau jaso dugu:

"Asko osatzen ditu gizonan zentzumenak

munduari ikusita, mendia-ri entzunda

apaltasuna lenago senti etzunak

izadiaren gaiak eta erantzunak".

Orremendi
Kirolak

AUKERA ZABALA
KIROL ARTIKULUETAN



JUAN BAUTISTA ERRO, 2 - TELF. 59 18 06 ANDOAIN

Joxe Ramon

Taberna

PINTXO EDERRAK !!

KALE NAGUSIA, 16 - ANDOAIN

UDALETXE BERRIAREN INAGURAZIOA ADUNAN. 1959.

Udaletxe berria Diputazioak egin zuen eta inagurazio egunean Gipuzkoako agintari zibil eta erlijioso nagusiak bildu ziren Adunan. Garai hartan mutilek eta neskek gela ezberdinetan bereiztuta ikasten zuten. Argazkiak gotzainak nesken gela bedeinkatu zuteneko unea jaso du.

Geroztik maisu eta maistra ugari igaro ziren Udaletxeko beheko solairuetan zeuden eskolako geletatik. Ikasgela berriak inaguratu zituzten urte berean eskolan hasi zen Jabier Zabalak ondo gogoan ditu adibi-

dez, aipaturiko Asuncion Amasa andoaindarra maistra eta Burgoseko Filomeno Martinez. "Bakailaoa" deitzen zioten azken honi, bakaioloa bezain mehea baitzen. Eta kontatu digunez, "bakailaoa" delakoak ez zuen arrainaren pare gozotasunik pittinik, eta bere makil kuttuna beso azpian hartuta, airean ibiltzen ziotuen mutil kozkorak, euskaraz egiten zutenean batez ere.

Eskola orduen ondoren maistra andoaindarrak hiru ordu laurdeneko dotrina klasea eman ohi zien, eta hura berriz, mojak berak baino gogorragoa zen.



ARGAZKIKO HERRITARRAK EZKERRETIK ESKUINERA: Jose Manuel Goenaga elizmutila, Juan Zabala zinegotzia, Modesto Zabala alkatea, Juan Iruretagoiena erretorea eta Andoaingo Asuncion Amasa herriko maistra. Hauezaz gain, egun horretan gotzaina, gobernadore zibila eta Diputazioko ordezkaria bildu ziren.

LOATZO ASEGURUAK - ASESORIA



ZURE ETORKIZUNA
BIZI ASEGURUA
JOXERRA GARMENDIA MUJICA
IBON GARMENDIA UGARTE

Antxin kalea, 3 behea - ☎ 69 39 13 - Faxa 69 38 43 BILLABONA

**Joxe Mari
ITURRALDE**

ZURGINDEGIA

Formika lanak, sarrerako eta barruko ate mota guztiak eta edozein zurgintza lan.

ADUNA - ☎ 69 20 81



FLORENTINO MAIOZ SEGA-EGILEA ASTEASUARRA; 34 URTE; AROTZA

- Noiz basi zinen segak egiten?

- Hamabost urterekin basi nintzen. Orduan ez nintzen oso trebea, geroztik osaben laguntzarekin eta arituz ikasi dut. Bai aitona bai aitak segak egiten zituzten.

- Nola egiten dira segak?

- Lanean basi aurretik gauza asko hartu behar dira kontuan: segalaria gaztea ala edadekoa den, ze lur motan aritu behar duen, lanerako edo lehiaketarako den, eta belazea nolakoa den ere jakin beharra dago. Edadekoek horrenbeste ez makurtzeko kirten luzeagoa behar dute, lurraren arabera xaflaren forma ere ezberdina izan obi da lurrean gebiago edo gutxiago sartzeko. Bestalde, txapelketetarako segak handiagoak izaten dira. Eta norbere eta inguruko obiturek ere zerikusia izaten dute: Tolosatik basi eta Hernani bitartearaino sega handiak erabiltzen dira, Goierrri inguruan, Bizkaian eta Nafarroan berriz, txikiagoak.

- Garai bateko errementarien moduan egiten duzu lan?

- Bai, daukadan tresneriak 60 urte badauzka, gutxienez.

- Txapelketetarako segak egin obi dituzu gebienbat?

- Bai, "sega txapeldunik" ere badut, aurtengo Euskadiko txapelduna, Gazteluko Joxe Gabirondo nik egindako segarekin aritu da. Gainerakoan, azoketara eraman obi dituzte hemen egindako segak saltzeko.

- Behin altzaria eta kirtena eskuetan edukita zein da zure lana?

- Muturra arindu edo altxatu egiten da lehenengo, eta ondoren txinguran mailuaz joz gogortu egiten da (sega "tiratu" esaten diogu guk) eta forma egokia ematen zaio. Gero kirtena egokitu beharra dago norbere neurrira.

- Altzairuzko xafla eta kirtena nondik ekartzen dituzu?

- Kirtena lizar egurrezkoa izan obi da, hemen ingurukoa. Eta xafla berriz, garai batean Legazpiko Bellota lantegian egiten zuten, gaur egun kanpotik ekartzen dute, eta kalitatea ez da, inondik ere, berbera. Legazpiko xaflak gutzatzat egokiagoak dira.

- Noiz aritzen zara zu horrelako lanetan?


- Asteburuetan normalean. Hiru ordu inguru behar ditut sega bat egiteko. Baina urte osoan ere ez naiz aritzen, martxoan basi eta orain bukatzen da segak egiteko garaia. Eskuareak ere egiten ditut tarteka.

NOR DA PERTSONAIA EZKUTUA?



Bosgarren lehiaketa honetan lana pixka bat zailtzen saiatu gara. Zuhur begiraiezue aurpegi xeble honen aurpegiera nabarienei, eta laster osatuko duzue benetako begitarte, gure pertsonaia ezkutua asmatuz.

Billabonako Truchuelo argazki dendak eskaini digu sari polita: edonon eta edozein egoeratan zaudela, musika entzun dezazun **walkman paregabea**. Anima zaitezte eta bidaliguzue erantzuna lehenbailehen. Aurki egingo dugu zozketa.



Nagusia, 8 - Telf - Fax 69 12 30
BILLABONA

"25. URTEMUGA." PREZIO BEREZIAK

• Karrete bat erosiz hondartzarako baloi bat oparitzen dugu

• Karrete bat errebelatuz, argazki album bat edo giltzateko bat oparitzen dugu

AURRERA TABERNA

Girorik ederrena gazterientzat!!
ZIZURKIL

Albañileria USABIAGA

Leku - Ona Etxea, 2 - Iharza auzoa
Tel. 69 35 60 - 69 34 35
20150 ZIZURKIL (Gipuzkoa)

Ikatzza Taberna

GIRORIK JATORRENA !!

Larramendi, 19 - ☎ 59 41 89 ANDOAIN

Agenda

JAIK

ANDOAIN

OLAGAIN AUZUNEKO JAIK

Urriak 13:

18.30: Txupinazoa eta haurrentzako jolasak.

21.30: VIII. "erratz" txapelketa.

23.30: Dantzaldia.

Urriak 14:

11.00: Hormairudia margotu.

12.00: *Lunch*.

15.00: VIII. mus eta partxis txapelketa.

17.00: Haurrentzako jolasak.

19.30: Tortila lehiaketa.

23.30: Dantzaldia.

Urriak 15:

12.00: XVII. toka txapelketa.

14.30: Herri bazkaria eta ondoren helduentzako jolasak.

MERKATU TXIKIA

ANDOAIN

Alokatzeko edota erosteko pisu baten bila ari naiz. ☎ 42 16 64

IBILALDIAK

ANDOAIN

EUSKALDUNA MENDIGOIZALE TALDEAK ANTOLATUTA:

Urriak 15:

"Erromesaren ibilbidea", 7. ibilaldia: Trespuentes-Badaia mendizerra-Oroko santutegia- Murgia. (5 ordu).

Urriak 29:

Lizuniaga-Ibantelli (698m): Palomeras-Aitzxuri (756m)-Zugarra-murdi. (6 ordu).

BILLABONA

AIZKARI MENDIZALE ELKARTEAK ANTOLATUTA:

Urriak 22:

Belate-Saioa (1.418 m)-Okoro-Iurrita.

ANTZERKIA

ANDOAIN

Urriak 22:

"Taun-taun" taldearen "Makinatu" antzezlan 20.00etan La Sallen.

ZINEMA

ANDOAIN

HAURRENTZAKO ZINEMA

Urriak 22:

"Ipar haizearen itzulera"
La Sallen 17.30etan.



ORDUTEGIA


Ostirala: 22,30

Larunbata: 19,30 - 22,30

Igandea: 19,30 - 22,30

Astelehena: 19,30 - 22,30

ABIADURA HANDIKO TRENİK? EZ!!!



Presik ez daukaqu ta, Hotel...



BETERRIKO ALDIZKARIA

AIURRI


UDALEN BABES ETA

LAGUNTZAREKIN

M. LARRAMENDI KULTUR
BAZKUNAK ARGITARATZEN DU



ZURE AUTOAREN ASEGURUA AUKERATU
BAINO LEHEN 10 ARTE ZENBATU...



POLIZA
10



MAPFRE

Xabin Mujika Tolaretxipi

*Kaleberria, 11 — Dr. Huici, 4
Telf. 59 23 07
ANDOAIN*

*"Lehenengoan Berma
Hirugarrenen Salneurrian"*

...ETA ASEGURU BIKAIN BATEZ GOZATU



Talleres KARRIKA, C.B



AUTO KONPONKETA

**BERRI NAHIZ
BIGARREN ESKUKO
AUTO SALMENTA**



Ubilluts auzoa. 56. Pol. zenb. Tel 30 02 14 ANDOAIN (Gipuzkoa)